# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### LEHENDAKARITZA

## 4513

*EBAZPENA, 2015eko urriaren 16koa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa bete gabe uzten duena.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2 artikuluan aginduta-koarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa iragarriz Lehendakaritzaren idazkari nagusiak 2015eko irailaren 1ean eman zuen Ebazpeneko (irailaren 1eko EHAA, 165 zk.) hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea goi-kargudunaren idazkari lanpostu hau: Europar Gaietarako Zuzendaritzan, C/D taldea, 18 maila, 520010/18 kodea.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bideari bukaera ematen dio. Aurka egiteko, auke-rako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke ebazpena eman duen organoari, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 16a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.